

DIONISIO USARRAGA,

HERNANIKO SAREGILEA

Edorta Murua (GABILTZA Artisau Elkarte)

Dionisio Usarraga, Hernaniko saregilea, maiatzaren 5ean zendu zen, artikulua egina zegoenean.

Omenaldi txiki bat egin nahi genion eta orain, bere heriotza eta gero, hona hemen egin genuena.

Dionisio Usarraga bere lana maite zuen eta... harro egoteko arrazoi asko eman zigun. Hona hemen, aurretik egina izan arren, gure omenaldia Dionisioarentzat.

L aurogeita sei urteko gizona dugu Dionisio; hamabi urte zituenean, bere aitarekin hasi zen sareak egiten ikasten. Garai zailak ziren eta aita, "Papeleran" lan egin ondoren, bere tresnak hartu eta arrainak harrapatzera joaten zen Hernani eta Goizuetako erreketara; familia handia zuen eta, nolabait fabrikari ateratako soldadari lagundu egin behar izaten zion. Bigarren lan honekin diru pixka bat gehiago irabazten zuen etxeko gastuei aurre egiteko. Eta gure Dionisio, mutil koxkorra zenetik aitarekin hasi zen arrain kontuak ikasten.

Arrainak harrapatzeko, sareak behar ziren eta lan honetaz zekiena erakusten hasi zitzaion aita Dionisiori. Pixkanaka-pixkanaka zaletasuna sartu zitzaion eta handik hona etengabe aritu da lan hauetan. Aitarengandik arrainak harrapatzen eta, nola ez, horretarako behar diren sareak egiten ere ikasi zuen Dionisiok.

Sareak ez dira denak berdinak. Arrainaren arabera, sare mailek edo tarteek neurri jakinak izan behar dituzte. Izokinak harrapatzeko, esaterako, sare mailak handiagoa behar du eta



Dionisio Usarraga.

HERNANI

Ochenta años de tradición familiar

Dionisio Usarraga, un artesano con ingenio en las ferias y exposiciones



Dionisio Usarraga, con sus cuerdas, butrinos, bolsas de costado, redes, mallas, hilos de nylon, algodón, etc. en plena lana. (Foto Biyok.)

Hernani (D.V. por interno). — Una de las jornadas festivas que en pocos años ha alcanzado relieve y pujanza en la feria o exhibición de artesanía vasca. Sobre ella, pronto habrá materia informativa, pero hoy queremos «presentar» a un veterano hernanés, participante en esta y otras ferias artesanales de la provincia.

Dionisio Usarraga, nacido en la calle Mayor el mes de enero del año 1916, precisamente en la casa donde estuvo ubicado por los años veinte el Boxing Club. Sonrió al recordar ahora a sus 67 años, que él también era de los chavales que intercambiaba fortazos con otros amigos, sobre el ring de Joakin Zubeldia.

A **Dionisio Usarraga** se le ve diamante (si el tiempo acompaña) trabajando afanosamente al aire libre. Unas veces en el pasaje de los Tíos, y otras, cerca de su domicilio académico, cerca de su domicilio académico, cerca de su domicilio académico, cerca de su domicilio académico.

80 años de tradición familiar

Actualmente es pensionista, pero su afición y deseos de continuar con esta artesanía euskaldún, le lleva a trabajar numerosas horas al día. Empezó a los doce años, aprendiendo con su abuelo, Policarpo Usarraga, y entre ambos, llevan más de ochenta años en el oficio. Su abuelo fue operario. Trabajo primero en la fábrica de Almidón Remy, del barrio de la Florida (se

las Bolsas de costado, que realiza hasta dos por día.

La época dorada del río Urumea

Con **Dionisio Usarraga**, se podría estar hablando horas, incluso días, sobre la fauna del río Urumea, en su época dorada, a lo largo del siglo, en sus primeros cuarenta años. Ya se sabe que en los años cuarenta, comenzó la contaminación del río Urumea. Entre Martutene y Epeleko-Etxe-Epele, para arriba, y cuando más arriba, mayor cantidad y mejor, trucha y anguila. En aquellos años

distancia, para ir a pie. En aquellos años la trucha y el salmón abundaban tanto como las manzanas que surtían después a las numerosas sidrerías de la comarca, por no decir más.

Acude a diversas ferias artesanales

Dionisio Usarraga acude invitado a las distintas ferias de artesanía de la provincia: Rentería, Euzkadi, Elgoibar, Mondragón, Anzuola, Hernani, etcétera. A primeros de octubre acudirá a Urneta con motivo de sus fiestas patronales de San Miguel.

amurrainak harrapatzeko, berriz, txikiagoa. Haria ere desberdina izaten da sareak zenbat irautea nahi den; algodoizko hariak urtebete irauten du gutxi gorabehera erabilera arrunta ematen zaionean. Nylonezkoek, berriz, sei urte ere irauten dute. Baina nyloa erabiliz gero eskuek indar handiago egin behar izaten dute.

Sareak egiteko orratz berezia behar izaten da. Antzina, balea-hezurra erabiltzen zen orratz hauek egiteko. Geroztik, ordea, egurrez eta, geroago, plastikoz egin izan dira. Dionisiok berriz, bere eskuekin egindako letoizko orratzak erabiltzen ditu.

Aitarengandik ikasitakoa ez zen nahikoa Dionisiorentzat. Hori zela eta, hor ibiltzen zen Pasaian, Donostian, etab. arrantzaleekin eta arrantza dendetan sare mailak, formak eta korapiloak ikusten eta ikasten, eta berak ez zekien guztiaz jabetzen joan zen horrela. Gero probak egin behar ziren, eta behar bezala funtzionatzen zuela egiaztatuta, aurrera.

Bere saregintza lana oso garrantzizkoa izan da. Urteak eta urteak igaro ditu Euskal Herriko artisauek bere lana erakusten.

Hernanin, "Pablo Lasa" izeneko artisauek azoka antolatzen da orain dela 22 urte. Azoka hau Pablo Lasa eta Jaxinta Mendiola hasi ziren antolatzen, 1979an, Hernaniko Herri Jakintza elkartearen izenean. Dionisio hori egon da hasiera-hasieratik, urte batean ere hutsik egin



Dionisio Usarraga 1980ko "Pablo Lasa" Artisauek Azokan sareak egiten. (Argazkia: Marimi Azkue).

"Ochenta años de tradición familiar. Dionisio Usarraga, un artesano con ingenio en las ferias y exposiciones"; 1983ko abuztuaren erreportajea. Dionisiok omenaldi ugari jaso ditu aspaldidanik.

gabe, Udaletxearen arkupeetan, nahi izan duen guztiari sareak nola egiten diren jendaurrean erakusten. Bera da 22 urte hauetan azoka honetan parte hartu duen artisauek bakarrena. Ez du meritu gutxi.

Dionisiok jaso ditu bai, merezimendu guztiarekin emandako hainbat sari eta omenaldiak: 2000. urtean, Gipuzkoako Bazkondeak urtero ematen duen "Artisauek Tradizionalaren Agiria" jaso zuen; eta 2001. urtean Ordizian urtero antolatzen den "Artisauek" izeneko artisauek jardunaldietan "Gabilta" artisauek elkarteak orogarri berezia eman zion Gipuzkoako artisauek izenean.

Dionisio Usarraga, bere lana maitatzen duen gizona da. Pena handi bat ere badauka, ordea: inor ez duela sareak egiten jarraitzen. Lanbide hau galtzearekin dago; hau irakurtzen duen norbait ez ote da animatuko sareak egiten ikasten?

Badu Hernanik, hortaz, harro egoteko arrazoirik. Badugu artisauek nor ere du hartu. Dionisio Usarraga da artisauek eta gizon hori.